

08/2017 UDALEKO OSOKO BILKURA

2017KO AZAROAREN 27AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M^a Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2017ko azaroaren 27an arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakartzapean, eta Pedro M^a Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Iñaki Merino Castro, Kepa De la Iglesia Sánchez, Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziek ez dute ezin etorria adierazi.

1.- **2017KO URRIAREN 30EAN OSPATURIKO UDAL PLENOAREN BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

2017ko urriaren 30eko udal plenoaren bilkuraren akta aho batez onartu dira.

2.- **EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2017KO URRIAREN 16TIK 2017KO AZAROAREN 9 BITARTE.**

2017ko urriaren 16tik 2017ko azaroaren 9a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, udal batzarkideak jakinaren gainean geratuz.

3.- **ANOETAKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN TESTU BATEGINA ONESTEKO PROPOSAMENARI GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ESKATUTAKO ZUZENKETA ETA IZAPIDE OSAGARRIAK ONESTEA.**

- 2012ko apirilak 23ko Udalbatzaren akordio bitartez hasierako onarpena eman zitzaion Anoetako HAPO-ri.
- 2015eko urtarrilaren 26ko Udalbatzaren akordio bitartez behin behineko onarpena eman zitzaion HAPO-ri.
- Behin behineko onarpena egina zegoenean ikusi zen zenbait alderdi aldatzeko beharra (Modesto-Enea, Arautegi Orokorreko 119 eta 120 artikulak , 1-8 Planoak), eta aldaketa hori izapidetu zen: .

- 2015eko irailaren 28ko Udalbatzaren akordio bitartez behin behineko onarpena eman zitzaion aldaketa horri, eta ondoren jendaurreko erakustaldia egon da.

- Erakustaldian ez da alegaziorik egon.

- Arkitekto aholkulariak 2015eko abenduaren 11-ko datarekin txostena egin du, bertan alegaziorik egon ez denez, aldaketa onartzea eta HAPOren espedientearekin jarraitzea proposatzen du.
- 2015eko abenduaren 16ko Udalbatzaren akordio bitartez behin behineko izaeraz 2015eko urtarrilaren 26ko Udalbatzaren akordio bidez onartutako Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa dokumentu osagarriari onarpena eman zitzaion.
- 2015eko abenduaren 16ko Udalbatzaren akordio bitartez ere Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren espedientearen aginduzko txostena eskatzea onartu zen, espedientearen Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali baino lehen, honek behin betiko onarpena eman diezaion, hala badagokio.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak 2016ko urriaren 5ean izandako 4/2016 Osoko Bilkuran, aldeko irizpena eman zuen, zuzenketa batzuk egiteko baldintzapean.
- 2017ko martxoaren 27an ospatutako Udalbatzarraren Ohiko Bilkuran, Anoetako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Testu Bategina jasotzen duen dokumentua onartzea eta dokumentuaren lau ale Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honek behin betiko onartzeko.
- 2017ko maiatzaren 29ko 604 sarrera erregistroa duen idatziaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasunerako eta Lurralde Antolaketarako Departamentuko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren arduradunaren ebazpena jakinarazi zitzaion Anoetako Udalari; ebazpen horren bidez, Anoetako Udalari Hiri Antolaketarako Plan Orokorraren espedientearen itzultzea ebatzi zen, ebazpenaren azalpen zatian aipatutako kontuak zuzentzeko; ebazpenak ohartarazten zuen 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 91.4 artikuluan plana behin betiko onartzeko ezartzen duen hiru hilabeteko epea ez zela kontatzen hasiko zuzenketa egin bitartean.
- Lehenik, espedientearen ez zegoen jasota araudi hauetan eskatzen diren nahitaezko txostenak eskatu direnik:
- 1998ko abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretuak, interes orokorreko aireportuen eta haien zerbitzu eremua antolatzeak, bigarren xedapen gehigarrian; 2015eko irailaren 29ko 38/2015 Legeak, Trenbide Sektorearenak, 7. artikuluan, eta 2014ko maiatzaren 9ko 9/2014 Legeak, Telekomunikazioei buruzkoak, 35.2 artikuluan.
- Anoetako Udalak 2017ko ekainaren 5eko 571, 572 eta 573 zenbakidun irteera erregistro zenbakidun idatzien bidez eskatu zituen aipatutako txostenak.
- 2017ko uztailearen 10eko 805 sarrera erregistro zenbakidun idatziaren bidez Telekomunikazioei buruzko txostena jaso zuen Anoetako Udalak.
- 2017ko irailaren 12ko 978 sarrera erregistro zenbakidun idatziaren bidez Trenbide Sektorearen txostena jaso zuen Anoetako Udalak.
- 2017ko irailaren 25eko 1028 sarrera erregistro zenbakidun idatziaren bidez interes orokorreko aireportuen eta haien zerbitzu eremua antolatzeak txostena jaso zuen Anoetako Udalak. 2017ko urriaren 10eko 1094 sarrera erregistro zenbakidun idatziaren bidez aipatutako txostenaren txosten osagarria jaso zuen Anoetako Udalak.
- Bigarrenik, espedientearen ez zegoen 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 108. artikuluan aurreikusitako herritarren parte hartze programari eta hori gauzatzeari buruzko aipamenik.

- 2017ko urriaren 11ko 1103 zenbakidun sarrera erregistro zenbakidun idatziaren bidez arkitekto aholkulariak Anoetako Plan Orokorraren izapidetzean eginiko parte hartze herritarraren inguruko txosten teknikoa aurkeztu zuen.
- 2017ko azaroaren 21eko 1272 zenbakidun sarrera erregistro zenbakidun idatziaren bidez arkitekto aholkulariak Plan Orokorraren Testu Bateginaren zuzenketei buruzko txosten teknikoa aurkeztu zuen.

Aztertu da Idazkariak 2017ko azaroaren 21eko datarekin egindako txostena.

2017ko azaroaren 22an Anoetako Udaleko Hirigintza Batzordeak irizpena eman zuen.

Horiek guztiak ikusita, akordio hauek onartzen dira, eskubidez eta izatez korporazioa osatzen duten bederatzi zinegotzietatik bertaratu diren bost zinegotzien aldeko botoarekin, hau da legeak ezartzen duen gehiengo osoaren aldeko botoekin :

Lehena.- Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren Testu Bategina onesteko proposamenari Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatutako zuzenketa eta izapide osagarriak onestea.

Bigarrena.- Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren Testu Bategina onesteko proposamenari Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatutako zuzenketa eta izapide osagarriak eta Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren Testu Bategina jasotzen duen dokumentuaren lau ale Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honek behin betiko onarpena eman diezaion, hala badagokio.

4.- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIAREN ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO SALAREN 415/2017 EPAIAREN BERRI EMATEA(719/2017 ZENBAKIDUN APELAZIOKO ERREKURTSOA). BPXPORT KIROL ZERBITZUAK, S.L.**

Ikusita 362/2013 eta 146/2015 jatorrizko Prozedura Arruntetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salak emaniko 415/2017 zenbakia duen sententzia (719/2017 zenbakidun apelazioko errekurtsoa):

Apelatailea:BPXPORT Kirol Zerbitzuak, S.L.

Apelatu: Anoetako Udala.

Gaia: “2013ko maiatzaren 27ko eta 2014ko abenduaren 29ko Udalbatzarraren Osoko Bilkuraren ebazpenen aurkako errekurtsoa; ebazpenak, Anoetako Udal Kiroldegiaren kudeaketarako kontratuaren likidazioari buruzkoak; 2014ko maiatzaren 13ko alkate dekretuaren aurkako errekurtsoa, Anoetako Udal Kiroldegiaren kudeaketa integralararen zerbitzu ematearen erreklamazioari buruzkoa”.

Eta bertan ondorengo **EPAIA** ematen dena, Udalbatzako kideak jakinaren gain geratuz:

“CON DESESTIMACION DEL RECURSO DE APELACIÓN NÚMERO 719 DE 2017, INTERPUESTO POR LA REPRESENTACIÓN PROCESAL DE BPXPORT KIROL ZERBITZUAK, S.L., CONTRA SENTENCIA N° 80/2017, DE 24 DE ABRIL, DICTADA POR EL JUZGADO DE LO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO N° 1 DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN EN LOS AUTOS DEL RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO N° 362/2013 Y ACUMULADOS 146/2015, DEBEMOS:

PRIMERO: CONFIRMAR COMO CONFIRMAMOS LA SENTENCIA APELADA.

SEGUNDO: CON IMPOSICION A LA PARTE APELANTE DEL PAGO DE

LAS COSTAS PROCESALES DEVENGADAS EN ESTA SEGUNDA INSTANCIA.

5.- 2017KO URRIAREN 26KO ALKATETZAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA: DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 1 ZENBAKIKO 1 EPAITEGIAN ZABALDUTAKO 418/2017 PROZEDURA ARRUNTEAN AZALTZEA ETA ABOKATU ETA PROKURADOREAK IZENDATZEA.

Udalbatzak jakintzat eman du 2017ko urriaren 26ko dekretua, zeinaren bidez Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegian zabaldutako 418/2017 Prozedura Arruntean azaltzea eta abokatu eta prokuradoreak izendatzea onartzen den, eta honela dioena:

“DEKRETUA

Anoetan, bi mila eta hamazazpiko urriaren hogeita seian.

Ikusita 2017ko irailaren 27an (1036 sarrera zenbakia) Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1. zk.-ko Epaitegitik jasotako idatzia, zeinak, 418/2017 Prozedura Arruntaren barruan, eskatzen duen Anoetako Udalak udal espazio publikoan kokatutako ETA erakunde terroristaren presoen aldeko ornamentuzko elementuak kentzearen inguruan zabaldua duen espediente administratiboa 20 eguneko epean igortzea, Estatuko Administrazio Orokorra horrela eskatzen duelako.

Demandatzailea: Estatuko Administrazio Orokorra.

Administrazio demandatua: Anoetako Udala.

Dagozkidan eskuduntzaz baliatuz.

EBATZI DUT:

Lehena.- Lehen aipaturiko Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1. Zk.ko Epaitegian zabaldutako 418/2017 Prozedura Arruntean azaltzea.

Bigarrena.- Aipatu prozeduran Anoetako Udalaren interesak defendatzeko Pedro M^a Odriozola Zubizarreta abokatu jauna eta Udalaren epaiketa ordezkariak orokorrerako izendaturiko prokuradoreak izendatzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatzak egindako hurrengo bilera arruntean.”

6.- “AZAROAREN 25A, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA” ERAKUNDE ADIERAZPENA

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatutako ondorengo erakunde adierazpena aho batez onesten da:

“2017KO azaroaren 25a, emakumeen kontrako mota guztietako indarkeria gaitzesteaz gain, indarkeria sortzen duten agente eta egitura guztiak gaitzesteko eta aski dela esateko egun bat da. Eta egun horretan erakunde publikoek, borroka horretan dugun lehentasunezko agente-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu. Emakumea izateagatik soilik indarkeria jasateko aukera txikiena dagoen bitartean, gure herrian ez dugu bakea edo normalizazioa lortuko.

Horregatik, Anoetako Udaleko EH Bilduko taldeak honako adierazpen instituzionala aurkezten du plenoan aurkeztu eta onartzeko:

1- Udal honek, indarkeria mota hau izendatzeko modua zehazte aldera, aurrerantzean “indarkeria matxista” adiera erabiliko du, indarkeria hori gizarte matxista batek

sostengatzen duela irizten baitu.

2- Anoetako Udalak, 2018ko aurrekontuak definitzeko unean, Parekidetasun sailari beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak emango dizkie, eta unitate horiek egonkortu eta indartzeko konpromisoa hartzen du.

3- Udal honek, herriko eragile desberdinekin eta bereziki emakume-taldeekin lankidetzan, Anoetan indarkeria matxistei aurre egiteko plan bat aztertuko du, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz.

4- Anoetako udaletik borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean, eta, bide horretan urtean zehar generoaren inguruko hausnarketa eta jabekuntza guneak antolatuko ditugu, hezkuntza egitasmoa bultzatuko dugu Ikastolarekin batera eta martxoaren 8aren eta azaroaren 25aren inguruan ekitaldiak bultzako ditugu.

5- Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak sendotzeko, epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko legeria berraztertze konpromisoa hartzeko.

6- Azkenik, izendatzen ez dena ahazten errazagoa delako, eta inork ez ditzagun ahaztu, aurten hil dituzten edo eraso larriak jasan dituzten emakumeak eta euren seme-alabak (askotan ahaztu egiten diren biktimak) gogorarazi nahi ditu Anoetako Udalak:

- Elvira López, Portugaleten eraila,
- Sara Majarenas eta Izar 3 urteko alaba, aitaren aldetik erailketa-saiakera bat jasan zuena Benifaió udalerrian,
- Blanca Marqués, Burlatan eraila,
- Raquel López, Eibarkoa, eta 11 urteko semea, Alcobendasen erailak,
- Sofía Tato, Villabonakoa, Cáceresen eraila,
- Mèlodie Massé, 8 hilabetez haurdun, Ustaritzen eraila,
- Noelia Noemí, Sestaon eraila, eta
- Ana Belén Jiménez, Lantaronekoa, Miranda de Ebron eraila.

Anoeta, 2017ko azaroaren 27a

7.- “ABENDUAREN 3, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA”. ERAKUNDE ADIERAZPENA.

Galde-erreguen tartearen aurretik, partaideen aldetik aho batez premiatasuna adierazi ondoren, eta udalbatzako batzarkide kopuru legalaren gehiengo absolutuaren boto baikorra ordezkatzeko dutela kontutan harturik, ondorengo gaia aztertu da:

EH Bildu talde politikoak deialdia banatu ondoren aurkeztutako ondorengo erakunde adierazpena aho batez onartu da:

“Abenduak 3, igandearekin, Euskararen Nazioarteko Eguna. Eusko Ikaskuntzak 1949. urtean Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3. egunarekin ospatzea erabaki zuen. Ia hirurogei urte igaro arren, oraindik orain, Euskal Herriko hizkuntza berreskuratzeko premia larriak bere horretan dirau.

Egia da, bistakoa baita, euskaltzale eta ekintzaile askoren ahaleginak ez direla alferrikakoak izan eta euskara orain dela 50 urte baino hobeto dagoela, askoz hobeto baina ez aski. Egia da, azken urteotan lortu dugu Euskal Herriko

lurrealde guztietan aurrera urrats esanguratsuak egitea. Egun, inoiz ez bezala euskaldunok berariazko erakundeak dauzkagula Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, alde batetik, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, bestetik, eta Nafarroa Garaian, azkenik. Baina ez daukagu hizkuntza politika bateraturik.

Badakigu, nola ez, edozein hizkuntza gutxituren behineneko arazoa, transmisioetik harago, erabilera dela, hizkuntza biziberritzea berau erabiltzea dela, alegia. Baina euskararen erabilera, xedea bada ere, ez da areagotuko oinarrian ez badu hiztun-elkarte zabala, sendoa, trinkoa eta engaiatua.

Datorren urtea, 2018, urte berezia da. Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak 100 urte betetzen dituzte eta 1968ko Arantzazuko Bileratik hona 50 urte igaro dira. Euskara Batuaren 50. urteurrena, alegia. Legebiltzarrak berariazko garrantzia eman nahi dio hizkuntzaren estandarizazioari eta Euskara Batuak normalizazioari dakarkiona nabarmendu. Hezkuntzan eta unibertsitatean, literaturan eta, oro har, kulturaren, hedabideetan eta gizarte zerbitzuetan lortu duguna ez zitekeen posible izan hizkuntza eredu estandarrik izan ez bagenu.

Batasuna. Hori da giltzarria: batasuna. Euskara Batua izan da, eta, euskaren normalizaziorako euskarri sendoenetakoa eta euskararen hiztun-elkartearen batasuna erabilera eraikitzeke orube egokiena. Sakondu eta zabaldu behar dugu batasun hori. Aspaldiko partez, hizkuntza politika Euskal Herriko erakunde publikoen eskumena da. Euskal Hirigune Elkargoarena, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan; Nafarroan Garaian Foru Gobernuarena eta Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Jaurlaritzarena. Eskumenak baditugu, beraz, orain kudeatu eta, ahal dela, bateratu behar ditugu.

Batasunaren aldarria zabaldu nahi dugu Legebiltzarretik: Euskara Batua sendotzeko eta hedatzeko, doakotasuna euskara edonork ikas dezan, hizkuntza politika bateratua Euskal Herri osoan eta euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.

Horregatik guztiarengatik, Anoetako Udalak Euskararen Nazioarteko Egunari begira (abenduak 3) ondorengo adierazpena onartu eta zabaldu nahi du:

Euskararen hedapena eta erabilera eraginkorra lortzeko ezinbestekoa hizkuntza eredu estandar egokia, gizarteratua eta onartua izatea. 1968 urteko Arantzazuko Euskaltzaindiaren Bilkuran abiatutako Euskara Batuaren prozesua izan da, dudarik gabe, euskararen normalizazioa izan ahal izateko euskarririk sendoena eta, aldi berean, euskaldunen arteko batasunaren seinalerik argiena.

Horiek horrela, gure erakundeak adierazi nahi du bere atxikimendua euskaldunen arteko batasunari eta euskararen erabilera sustatzeko ekimenei. Era berean, datorren urtean euskararen erabilera areagotzeko parte hartzeko konpromisoa gure egiten dugu.

Anoetan, 2017ko azaroaren 27an

*a.- Adierazpena eta konpromisoa hartu izanaren berri **udalen arteko erakundeei** lehenbailehen jakinaraztea.*

*b.- Euskararen erabilera sustatzeko zehaztutako ekimenen berri **udalen arteko erakundeei** jakinaraztea, **erakunde horiek** horren berri eman dezan.”*

8.- GALDE ERREGUAK.

Bat ere ez.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta hamar direnean; guzti honetaz, nik, Bitarteko Idazkariak, fede ematen dudalarik.